

Argi berdea Eusko Legebiltzarrean Enpresan parte hartzeko euskal eredu inklusiboari

Atzo, irailak 27, Eusko Legebiltzarrean Legez besteko Proposamen bat onartu zen Enpresan parte hartzeko euskal eredu inklusibo bat sustatzeko, Ganbaran zeuden talde parlamentario guztien babesarekin.

Enpresaren euskal eredua (eredu ez-zurruna, aldaketetara irekia eta progresiboki eta enpresa bakoitzaren errealitate konkretuaren arabera ezartzekoa), Arizmendiarrietaren Lagunak Elkartetik bultzatuta, politika, enpresa eta sindikatu arloko sentsibilitate desberdineko pertsona talde batek landu du, gure Elkarteko ordezkarien koordinaziopean. Lau ardatzetan oinarritzen da:

- 1.- Konfrontazioaren paradigma oinarritzko jarrera gisa hartu beharrean, lankidetzan, erantzunkidetasunean eta pertsonenganako arduraren oinarritutako kultura bultzatzea.
- 2.- Langileek kudeaketan edota emaitzetan edota jabetzan parte hartzea.
- 3.- Proiektu kolektiboaren sostengarritasuna interes taldeetako edozeinen interesen ginetik lehenestea.
- 4.- Ereduen oinarrian dagoen komunitatearen beharrak aintzat hartzea.

Eredu hori bultzatzeko, LBPa politikak publiko jakin batzuk abiarazteko eskatzen dio Gobernuari; horien artean aipagarri:

. Euskal enpresetan, parte hartze sistemak hedatu eta ezartzea kudeaketa arloan, eta praktikarik onenak ezartzea barne komunikazioan.

. Enpresaren emaitzetan langileek parte hartzeko sistemen ezarpena sustatzea.

. Langileei sarbidea ematea enpresaren kapitalean, horretarako laguntzak emanez.

. Jabetzan parte hartzea sustatzeko lagungarri diren politika fiskalei dagokienez, nazioarteko praktikarik onenak identifikatzea.

. Enpresa partaidetuen erregistro bat sortzea, sustapenerako har daitezkeen neurriei segurtasun juridikoa ematen laguntzeko.

. Eredua ezartzeko, ebaluazio eredu bat lantzen laguntzea.

. Proposatutako eredu hori sustatzeko, enpresariei eta langileei zuzendutako sentsibilizazio kanpainetan laguntzea.

. Ezarpenean nabarmentzen diren enpresei prestigioa ematea, eta horretarako, gaiari buruzko sari edo errekonozimenduren bat antolatzea.

. Enpresa kudeaketako, estrategia arloko eta abarreko aspektuei buruzko prestakuntza jarduerak lantzea, enpresa batzordeetako kideei, ordezkari sindikalei, inplikaturik dauden enpresetako sindikatu eta liberatuei eta abarrei zuzenduta.

LBPak, era berean, zera eskatzen die gainerako euskal erakundeei: dauzkaten eskumenen arabera, beharrezkotzat jotzen diren neurriak aplikatu ditazatela bai enpresen emaitzetan bai kapitalean langileen parte hartzea sustatzeko.